

- **Irabazi-iturriak**

Proiektua martxan jartzeko udalak emandako diru laguntzarekin eta guk jarritako diruarekin hasiko gara gure enpresa sortzen.

Sarrerak lortzeko, aktiboen diru salmentaz baliatuko gara, hain zuzen ere. Horrez gain, energia berriztagarrien erabilera sustatzen dugunez, udalak ere parte hartzen du diru laguntzak emanez. Komunikabideek, gure produktuen publizitatea egingo dute. Hauek, diru sarreraren %15a emango digute gutxi gorabehera.

Saltzen dugun toldo bakoitzeko 400€ irabaziko ditugu, horrela, hasieran jarritako dirua berreskuratzen joango gara.

Gure bezeroek produktua ordaintzeko bi modu izango dituzte: alde batetik, ordainketa errepikarien bidez ordaintzeko bidea egongo da, hau da, urtebete edukiko dute toldo osoa ordaintzeko. Gainera, interesak ordaindu beharko dute, %3a. Bestetik, ordainketa bakar batean egin ahal izango da.

Prezioa toldoaren neurriaren araberakoa izango da. Adibidez, 4x2 metroko toldo fotovoltaiko batek 999,90 €-ko prezioa izango du (muntaia barne), eta 24V eta 320w-ko potentzia. Zenbat eta tamaina handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da toldo horrek hartuko duen potentzia.



